



AGINDUA, OSASUNeko SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA EUSKADIKO PAZIENTEEN ERAKUNDEEN ERREGISTROAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN GAINEAN (LEGE HORREN ESPARRUAN SARTZEN DA PAZIENTEEN ERAKUNDEEK EUSKADIKO OSASUN-SISTEMAN PARTE HARTZEKO ARAUDIA).

Osasun Sailak lege-xedapen bat egingo du, Euskal Osasun Sistemari nola parte hartu arautzeko, bereziki, pazienteek eta haien erakundeek, eta esparru juridiko egonkor bat emango zaie osasun-politiken plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan esku hartzen duten mekanismoak.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta xedapen orokorrak izapidetzeko Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez onartutako jarraibideen esparruan, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea bideratzen da, ukitutako pertsonen, entitateen eta erakundeen iritzia jasotzeko.

Alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Zein izan daitezkeen beste aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaile batzuk.

Horregatik guztiagatik, hilabeteko epea ematen da pertsona, entitate eta erakunde interesdunek ekarpenak egin ditzaten. Izapide hau aurreproiektua burutu aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena. Aurretiazko kontsulta publikoa egitea Euskadiko Pazienteen Erakundearen Erregistroaren Lege-aurreproiektuari (lege horren esparruan sartzen da pazienteek Euskadiko osasun-sisteman parte hartzeko araudia).

Bigarrena. Hilabeteko epea ezartzea, arauak ukitzen dituen herritarren antolakundeek nahiz entitate eta erakunde interesdunek, hala irizten badiote, agindu honen eranskinean adierazitakoen gainean daukaten iritzia azaldu dezaten, Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



Osasun Saila.
Viceconsejería de Sanidad
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta
Digitalizazioaren Zuzendaritza

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren
Zuzendaritza

Sin.: ALBERTO MARTINEZ RUIZ.
OSASUNEKO SAILBURUA



Osasun Saila.
Viceconsejería de Sanidad
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta
Digitalizazioaren Zuzendaritza

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren
Zuzendaritza

I. ERANSKINA: Euskadiko Pazienteen Erakundeen Erregistroa arautzeko justifikazio-txostena (lege horren esparruan sartzen da pazienteek Euskadiko osasun-sisteman parte hartzeko araudia).

1. Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak

Euskal Osasun Sistemak esperientzia aberatsa duen osasun-partaidetzako ekosistema bat du, baina oraindik heterogeneoa da, ez oso sistematizatua eta erabakiak hartzeko orduan eragiteko gaitasun mugatua du. Partaidetza hori, batez ere pazienteen eta haien erakundeen inplikazioari dagokionez, ez da oraindik sistemaren egiturazko elementu gisa antolatzen.

Halaber, egiaztatzen da ez dagoela partaidetza hori sistemaren maila guztietan antolatuko duen esparru komunik (arreta eta zainketa, erakunde-sanitarioak eta osasun-politiken mailan –bestela esanda, mikro, meso eta makro mailetan–), partaidetzaren koherentzia, jarraitutasuna eta inpaktu-ahalmena bermatzeko.

Azken urteotan, osasun-arloko partaidetzaren inguruko hainbat aurrekari izan dira Euskadin; horien artean, Osasunean parte hartzeko Liburu Zurian jasotako lanak nabarmendu behar dira, esparru kontzeptuala eta arlo horretako lehen esperientziak sortzen lagundu baitute.

Hala ere, bultzada garrantzitsuena Euskadiko Osasun Itunaren esparruan gertatu da, eta, bereziki, 22. ildo estrategikoaren bidez, zeinak pazienteen partaidetza osasun-sistemaren egiturazko elementutzat hartzen baitu.

Esparru horretatik abiatuta, eta bereziki 2025etik aurrera eta 2026an zehar, lan-prozesu intentsibo bat garatu da, eta horri esker aurrera pausu handia egin da EAEn osasunean parte hartzeko eredua definitzen. Prozesu horretan hainbat topaketa, kontraste-gune eta baterako lan egin dira pazienteen erakundeekin, profesionalekin eta sistemako beste eragile batzuekin.

Ibilbide horren emaitza gisa, heldutasun-maila handiagoa lortu da eredua kontzeptualizatzeke, eta ikusi da arau-euskarri bat eman behar zaiola ereduaren irismena antolatzeko, haren egonkortasuna bermatzeko eta partaidetzaren dimentsio guztiak modu koherentean integratzeko.

Testuinguru horretan, pazienteen elkarte-sare sendoa eta heldua dago EAEn, eta sare horrek zeregin berezia betetzen du, pazienteen ordezkari gisa jarduten baitute, esperientzian oinarritutako ezagutza sortzen, eta osasun-sistema bera hobetzen. Hala eta guztiz ere, zeregin horrek ez du oraindik aitortzarik, eta sistemaren gobernantzaren barruan ere ez dago ondo zehaztuta nola txertatu behar den.

Halaber, pazienteen erakundeez aparte, badira osasun-arloan beste entitate batzuk ere –hala nola, hirugarren sektoreko entitateak; laguntzako, sentsibilizazioko edo ekintza komunitarioko entitateak, eta osasun-arloan interes berezia duten beste entitate batzuk– osasuna eta osasun-sistemaren funtzionamendua hobetzen laguntzen dutenak, ikuspuntu osagarrietatik.



Osasun Saila.
Viceconsejería de Sanidad
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta
Digitalizazioaren Zuzendaritza

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren
Zuzendaritza

Baina eragile horien parte-hartzea oso modu heterogeneoan gauzatzen da; ez dago esparru komunik, haien egitekoak, partaidetzarako espazioak eta osasun-erakundeekiko harremanak antolatuko duenik.

Horiek horrela, behar bat identifikatu da, argi eta garbi: partaidetza-sistema egituratu eta egonkor baterantz egin beharra dago, eragiteko benetako gaitasuna izango duen sistema baterantz, aukera emango duena pazienteek eta pazienteen erakundeek osasun-sisteman benetan parte har dezaten. Hartara, sistemari balioa ematen dioten beste eragile batzuen ekarpenak erraztuko dira eta pazienteen erakundeek duten zeregin berezia aitortuko da, haiek baitira pazienteen esperientziaren eta ahotsaren ordezkari antolatu nagusiak.

2. Ekimena onartzeko beharra eta egokitasuna

Araugintza-ekimena Euskadiko Pazienteen Erakundearen Erregistroa arautzeko arau-planeari aurreikusitako lege-aurreproiektuan txertatzen da. Hala ere, analisiaren eta osasunean parte hartzeko ereduaren beraren bilakaerak agerian utzi du tresna horri esparru zabalago batean heldu behar zaiola, pazienteek Euskal Osasun Sisteman duten parte-hartzea modu integrarean antolatu ahal izateko.

Alde horretatik, erregistroa sistemaren funtsezko osagai bat izango da, ez informazio-tresna soil bat edo errolda-helburua duen administrazio-erregistro bat soilik, baizik eta gobernantza-azpiegitura bat, osasuneko partaidetzaren zerbitzura egongo dena, pazienteen erakundeek osasun-sisteman parte hartzeko modua antolatzen, garden egiten, errazten eta indartzen laguntzeko, barnean hartuta partaidetza-prozesuen eta prozesu horietan parte hartzen duten erakundearen gardentasuna.

Erregistroaren xehetasunak zehazteko, beraz, ezinbestekoa da aurrena erabakitzea zernolako partaidetza-eredutan txertatuko den, ekosistema horretan zer eragilek hartuko duten parte eta haren funtzionamenduan zer printzipio hartuko diren arau gisa.

Ikuspegi horri esker gaintu egin daiteke erregistroaren ikuspegi mugatua edo administratiboa, eta partaidetza-sistema zabalago baten zerbitzura dagoen tresna izan daiteke, koherente izanik Euskadiko Osasun Itunaren helburuekin eta gobernantza-eredu irekiagoetara, egituratuagoetara eta balioa ematera bideratuta daudenetara jotzeko behararekin.

Lege bat onartzeak, beraz, partaidetza-ereduari segurtasun juridikoa, koherentzia eta iraunkortasuna emateko beharri erantzuten dio, eta eredu hori osasun-sistemaren gobernantzaren egiturazko elementu gisa integratzea bermatzen du.

Esparru horretan, legea arau integral bat da, osasun-sistema osoaren eta inplikaturako eragileen parte-hartzea antolatzen duena eta balioa ematen duten entitateak sartzea ahalbidetuko duen eredu ireki eta inklusibo bat bultzatzen duena.



Osasun Saila.
Viceconsejería de Sanidad
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta
Digitalizazioaren Zuzendaritza

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren
Zuzendaritza

Aldi berean, legeak berariaz aitortzen du pazienteen erakundeek, pazienteen esperientziaren eta ahotsaren ordezkari antolatu nagusi izanik, leku berezia betetzen dutela, eta osasun-sistamarako ordezkaritza, solaskidetza eta balioa ekartzeko zeregin espezifikoa esleitzen die, parte hartzen duten beste eragile batzuenetik bereizita.

Ikuspegi horrek aukera ematen du irekitasuna eta inklusioa desberdintzearekin eta onarpenarekin konbinatzeko, eta horrela saihestu egiten dira eredu baztertzailak eta pazienteen elkarte-mugimenduaren berezko zeregina diluitzea, eta parte-hartzea osasun-sistema osoaren hobekuntzara bideratzen da.

Halaber, ereduak kalitate-bermeak izango ditu partaidetza-prozesuetan, eta irizpide hauek hartuko ditu kontuan: gardentasuna, trazabilitatea, itzulera arrazoitua eta egon daitezkeen interes-gatazken kudeaketa egokia, gobernu onaren printzipioekin bat etorriz.

Ereduak eragileen funtzioak bereiziko ditu, eta balioa ematen duten erakundeek sisteman parte hartzea bermatuko, pazienteen erakundeek berez duten ordezkaritza-funtzioa indargabetu gabe, haien ahotsa baita erreferentzia nagusia partaidetza-espazioetan.

Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsutzat jotzen da partaidetza-ereduaren konfigurazioarekin lotutako alderdiei buruzko ekarpenak biltzea (II. eranskinean zehazten dira).

3. Arauaren helburuak

Hauek dira erregulazio berriaren helburuak:

- Euskal Osasun Sisteman parte hartzeko esparru juridiko integrala ezartzea.
- Parte-hartzea gobernantza sanitarioaren egiturazko elementu gisa konfiguratzea, Euskadiko Osasun Itunarekin bat etorriz.
- Pazienteek eta haien erakundeek parte hartzeko sistema bat taxutzea, sistemari balioa ematen dioten beste eragile batzuen ekarpena jasotzeko aukera ere emango duena.
- Pazienteen erakundeen zeregina aitortzea eta antolatzea, partaidetza-sistemaren barruan pazienteen esperientziaren eta ahotsaren ordezkari antolatu nagusi diren heinean.
- Beste eragile batzuen parte-hartzea modu osagarrian egituratzen dela bermatzea, pazienteen elkarte-mugimenduaren berezko ordezkaritza ordeztu gabe.
- Partaidetza-eredu koherente eta egitura bat eratzea, osasun-sistemaren arlo guztietan (arreta eta zaintza; erakunde sanitarioak, eta osasun-politikak).
- Partaidetza-prozesuak kalitate-, ekitate-, gardentasun-, trazabilitate- eta itzulera-irizpideekin garatzen direla ziurtatzea.



Osasun Saila.
Viceconsejería de Sanidad
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta
Digitalizazioaren Zuzendaritza

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren
Zuzendaritza

4. Izan litezkeen bestelako aukerak

Deskribatutako helburuak lortzeko, hainbat aukera baloratzen dira: bai egungo esparruari eustea hobekuntza partzialak eginda, bai partaidetza-ereduaren erregulazio integrala ahalbidetuko duen lege-mailako arau bat onartzea.

Pentsatu da lege batek bakarrik ematen duela aukera partaidetza-sistema modu koherentean eta egonkorrean egituratzeko, osasun-gobernantzan integratuko dela bermatzeko eta eragile batzuen eta besteen eginkizuna argi definitzeko, batez ere pazienteen erakundeena, pazienteen esperientziaren eta ahotsaren ordezkari antolatu nagusiak baitira.



Osasun Saila.
Viceconsejería de Sanidad
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta
Digitalizazioaren Zuzendaritza

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren
Zuzendaritza

II. ERANSKINA. Aurretiazko kontsulta publikoan agertu daitezkeen gaiak

1. Nola definitu beharko litzateke pazienteek eta haien erakundeek Euskal Osasun Sisteman zer zeregin duten, eta nola ziurtatu beharko litzateke haien parte-hartze eraginkorra sistemaren maila guztietan?
2. Nola egituratu beharko litzateke osasun arloko partaidetza-eredua Euskadin, osasun-sistemaren arlo bakoitzean (arreta eta zaintza; erakunde sanitarioak, eta osasun-politikak), eta zer zeregin izan behar lukete inplikaturiko eragileek?
3. Zer egitura, mekanismo edo tresna dira beharrezkoak parte-hartze eraginkorra eta eragiteko gaitasuna duena bermatzeko (adibidez: osasun-erakundeetako egiturak, partaidetza-erreferenteak, plan espezifikoak, elkarrizketa-espazioak edo -organoak)?
4. Nola eratu beharko litzateke Pazienteen Erakundearen Erregistroa eta zer neurri hartu behar lirateke elkarte-mugimendua aitortzeko, garden egiteko eta indartzeko, osasun-sisteman parte-hartze egituratua izan dezaten?
5. Zeintzu iruditzen zaizu direla, gaur egun, pazienteek eta pazienteen erakundeek euskal osasun-sisteman parte hartzeko zailtasun, traba eta zailtasun nagusiak?
6. Zer printzipio eta berme jotzen dituzu beharrezkotzat osasuneko partaidetza-prozesuetan gardentasuna, independentzia, ordezkagarritasuna, ekitatea eta kalitatea segurtatzeko?

Inés Gallego Camiña

OSASUNeko ERALDAKETA, PLANGINTZA ETA DIGITALIZAZIOAREN
ZUZENDARIA/

DIRECTORA DE TRANSFORMACIÓN, PLANIFICACIÓN Y DIGITALIZACIÓN EN
SALUD